

Nafarroakaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko otsailaren 3a / VI. urtea / 164. zenbakia

Haize zirimola

Nafarroak atek zabaldu dizkio haize energiari. Nafarroako Energia Hidroelektrikoak (EHN) Erreniegako gainean haize parke pilotua eraiki zuen joan den abenduan eta datozen bost urteetan, sei parke eraikitzeko asmoa du Nafarroako enpresak. Nafarroako Gobernuaren Energia Berrigarrien Egitasmoaren barnean, 1991ko ekainean lurralde osoan barrena eguraldi estazioak jarri zituen EHNk, eta, antza, haize parkeak eraiki eta errentagarritasuna lortzeko adina haize badabil Nafarroan.



Erreniegako parkea, Euskal Herriko lehendabizikoa.

Amen eta omen

AINGERU EPALTZA



Mugatiarrak

Ez da kasualitatea idatzi ditudan liburu gehienek mugako jendea izan badute protagonista. Izanez ere, gero eta gehiago maite ditut mugatiarrak, nongotasun problematikoa biziera bilakatu duten horiek. Maite dut euskarari buruz duten ikuspegia, ideologiaren eskutik etorritako hautapena edo halabeharra gabe —edo horiez gain—, truke hizkuntza baitute egin harekin. Maite, halaber, gauari etekina ateratzeko belaunaldiz belaunaldi garatu duten jakituria zaharra. Maite, batik bat, mugak sorrarazten duen izaera berezia.

Lagun zalantzakorrak eta apur bat eskizoideak, nongotarrak diren ez daude seguru eta inongoak ote diren ere etortzen zaizkie maiz ezbaiak. Barne urratu horrek segurantzaren abarotik aldenitu ditu eta umezurtzaren marka eratxiki haien bisaietan, baina horren aldera dena argi ikusteko ohitura madarikatuaren kontrako txertoa utzi du haien eskuetan eta eszeptizismoa eman opari. Gisa horretan ikusten ditugu, unean uneko gonbentzimendu ez erabatekoaren arabera gaur hemen eta bihar han, lege idatziek nahiz idatzi gabek landaturiko zedarrien gainean lotsagabe jauzika. Seguraski horregatik sorrarazten dute hainbertze mesfidantza lurraren zein gogoaren geografian muga zehatz-mehatzak ikusi nahi lituzketenen artean.

Hemen eta orain, zubirik egon ezina aldarrikatzen ari zaizkigu gero eta ozenkiago bai alde batetik bai bertetik. Nor bakoitzari marraren zein aldetan gauden galdetzen ari zaigu eta autista nahi gaituzte marraz haratakoekiko. Baina —beharrik—, agerian ez bada, azpitik ari zaizkigu mugatiarrak, sator-lanean eta elkarren berri izan nahi ez duten bi eremu hertsien artean mezulari. Ezinbertzez, euskal kultura mugatiarrez beterik dago.

Nik baino lehenago erran baitzuen Aseasuko poetak: inon ez dagoena leku guztietan dago.

JOXE LACALLE

GURE AUKERAK

IKASTAROA

Malabare Ikastaroa antolatu du AEKK datozen asteetarako, Arrosadia Euskaltegian. Parte hartu nahi dutenek 24 34 66 telefonora dei dezakete. Era berean, ikasturteko bigarren ikastaroa otsailaren 13an hasiko dela jakinarazi du Euskaltegiak, apuntatu nahi duenarentzat, ordu guztiak eta zortzi urratsetako klaseak dudelarik. Aurten, gainera, 'Alfabetatze eta Mintza-praktika' taldeak ere izanen dira.

Dantza Afro-Caribeña ikastaroa antolatu du Nafarroa Kirol Elkartek. Otsailaren 8an hasiko da, Elkartek Jarauta kalean duen egoitzan. Interesatuiek bertara hurbildu edo 22 43 24 eta 22 98 20 telefonoetara deitu dezakete.

'Impostacion de la voz' ikastaroa antolatu du Nafarroako Antzerki Eskolak datozen hiru hilabetetarako. Abotsa lanerako erabiltzen duten profesionali zuzendua, ostegunetan izanen da, arratsaldean, otsailaren 16tik apirilaren 6a bitartean. Eskolaren lokaletan eskainiko da eta matrikularen prezioa 14.000 pezetan jarri dute.

ANTZERKIA

'Miserableak' izenburuko ikuskizunaren euskarazko bertsioa eskainiko dute bihar larunbata, otsailak 4, Iruñeko Gaiarre antzokian. Hiriko udalak antolatuta, 150 musikari, abeslari, aktore eta abesbatzako kideak hartuko dute parte.

'Printze zorionsua' izenburuko antzezlan taularatuko du TEN Pimpilinpaxa taldeak igande honetan Iruñean. Udalak antolatutako haurrentzako kanpainaren barruan, Nafarroako Antzerki Eskolan izanen da, arratsaldeko 6.00etan. Sarrerak 250 pezetan salduko dituzte.

BESTELAKOAK

'Literatura beltzaren inguruan' gaiari buruz mintzatu da Xabier Olarra Igela argitaletxeko kidea heldu den ostegunetan, hilak 9, Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkartean. Arratsaldeko 8.00etan hasita, aurkezle gisa Felipe Rius kazetaria ariko da.

Jokin Sorozabal eta Xabier Zeberio bertsolariak ariko dira bihar larunbata, otsailak 4, Iturenen. Bertso bazkari moduan antolatuta, eguerdiko 14.00etan hasiko da, herriko ostatuan.

'El hombre de papel' izenburuko pelikula eskainiko dute heldu den asteartean, otsailak 7, Iruñeko Olite zineman. Zinema Mexikarri buruz Nafar Ateneoak antolatu duen zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Tutera

Tutera, Nafarroan inoiz gutxi izan ez bada ere, ari omen da urteotan bere burua agerrarazten, dela politikariei bertan bere mintzaldia egiteko gonbitea eginenez, dela arrotz zaletasuna erakutsirik munduko dese-

egiten hauen alde egin daitekeen guztia egiten ari direla tuterarrak, eta haur horiek, agure-atsoak izatera iristen direlarik, beti izango dutela gogoan Tudela izeneko herri txukun batean egon zirenekoa. Kalderetea gogoratuko

parrik ezean, 10 eta 16 urte arte zituela Nafarroan bizi izan zela jakinarazi digu. Curriculum eskasa. Bestetik, ez du gauza aipagarriegirik esan. Allirekin ongi moldatzen zela. Besterik ez zuen behar Alli gixajoak...



rriratu ostatu eman. Kostata bada ere, europarlamentaria ere badaukate. Besteak 'Metropoli Forala' baitaiatu zuen honetatik gutxietsi ohi dugun urrutiko Kalifatoaren boterea. Okertzen gara.

Berrogeitemezortzi haur Bosniako daukate bisitan. Tuzlakoak dira eta musulmanak. Ez dut zalantzarik

dute. Auskalo, batean bat betirako gelditzea ere oso litekeena da, tuterarren abegi ona kontuan hartuz.

Arzalluz ere egon berri da Tuteran. Begiramenez betirik ibili da bertatik, honek ere kalderetea jan du, Virgen del Yugo-n, eta, giputxek nafarroratzen direnean bandera baillitza astintzeko ia beti eskura ohi duten arbaso na-

Ez ziren aspertuko, ez, tuterarrak, azken asteotan, oso lurralde urrutikoetatik joandako jendeen ohitura eta piura harrigarri eta bitxiak ikusten, kaldereteak prestatzen, eurenak ez bezalako bizimodu eta filosofien gorabeherak eztabaidatzen. Exotikoak beti sorrarazten duen lilura erakargarriari so egiten.

Arzalluzi so egiten, jakina.

ASTEKO PERTSONAIK



Milagros Rubio
Politikaria



Debbie Davies
Musikaria

Tuterako udaleko zinegotzia den Milagros Rubio izango da Batzarreko zerrendaburu maiatzeko hauteskundeetan, alderdiak aste honetan aditzera eman duenez. Berarekin batera, gazteak, emakumeak, intsumisoak eta bestelakoek osatzen dute zerrenda, aurreko urteetan bezala. Egungo egoera politikoa kontuan hartuta, Batzarre bezalako alderdiek boto gehiago lortzeko aukera dutela azaldu zuen Rubiok. «PSOEk behera egin du eta beste alderdiek eskuratuko dituzte boto horiek eta indarren mapa aldatu daiteke», bere hitzetan. Honek, gainera, ezkerreko alderdien onerako izanen dela zioen. Ezker abertzalean, ordea, barne eztabaida latza dago egun, eta alde honetatik Batzarren «borroka armatuaren gaian ez datozela bat» gaineratu zuen.

Debbie Davies gitarra jole eta blues kantariak kontzertua eskaini zuen atzo Reverendos dantzalekuan. Albert Collins blues abeslariaren The Icebreakers taldeko kide izan zen hiru urtez, 1993an bakarrik aritzea erabaki zuen arte. Debbie Daviesek bere taldea osatu du, Debbie Davies Blues Band, eta 'Loose tonight' bere azken diskaren kanta berriak aurkeztu zituen atzo Iruñean. Debbie Davies Los Angelesen (EEBB) jaio zen eta bere aitaren eskutik murgildu zen musikaren munduan. Eric Clapton lehen aldiz entzun zuenean erabaki zuen gitarra ikastea. Blues musikaren maisu handienekin jotzeko aukera izan du eta kritikariek diotenez, zuzenean lortzen duen soinua da bere ezaugarririk garrantzitsuenetarikoa.

AHAZTU GABE!

LEHIAKETA



Leitzako 'I. Laburmetrai Lehiaketa' martxan jarri du herriko ikasle talde batek, Andoaingo Zine eta Bideo Eskolako zuzendaritzaren aholku eta laguntzarekin. Oraindik finantziario arazoaren bat duten arren, herriko eta inguruetako kultur ekitaldiak bul-tzatzeko helburua duen ekimen hau aurrera eramateko asmoa dute. Zine edo bideo grabaketak atsegin dituen jendeari zuzenduta dagoen lehiaketa da, ekimen honen bidez profesionalak ez diren lagunak beren bideo grabazioak jendearen aurrean erakusteko aukera dutelarik. Laburmetrai guztiak euskaraz izanen dira, zinemaren gaian ez baitago euskarazko gauza handirik. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan aurkeztu behar dituzte bere lanak heldu den martxoaren 20 baino lehen. Bertara joenez edo postaz bidaliz egin daiteke. Laburmetraiak VHS formatoan eginen dira eta 8 eta 12 minutu bitarteko iraupena izanen dute.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gaintik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Irulegi Irratia gaitzeko forman

LUTXI FOURCADE / GARAZI

Irulegiko Irratiko langile eta laguntzaileak esperantzaz beterik daude geroari buruz. Diru arazo batzuk badituzte baina ez da arrazoï nahikoa morala gaitzeko, batez ere ikusiz gero eta jende gehiagok parte hartzen duela emankizunen prestatzean. Joan den urtean 125 emankizun-egile zenbatu dituzte irratiari, langileek pozez beterik ziotenez. «Eta proiektu franko baditugu sakeletan oraindik», segitu zuten.

Urteko biltzar nagusia egin zuen Irulegiko Irratiak joan den larunbatean eta aratsalde gehiena iragan zuten 35 lagunek Donibane-Garaziko lokalean irratiaren egoera osoa aztertzeko. Lehendabizi, gaurko egoerari hurbiletik begiratu zioten, aurten aldateta batzuk sartu baitira irratiari. Esate baterako, kazetari formakuntza segitu dute irratiari lau berriketariak: Pantxo Irigarai, Pantxika Maitia, Jojo Bidart eta Bernadette Irigarai. Irratiko animatzaile famatuari dagokionez, Marie Agnes Gorostiague, irratiari zuzurki egona zen. Irrati-gintzan segitzeko, azpimarratu behar da berrikuntza anitz izan direla aurten emankizunen alde-



Urteko biltzar nagusia egin zuen joan den larunbatean irratiak.

tik eta bereziki gazteek egiten dutena. 'Errazu aitaxi amatxi', 'Txiki Toka' edo 'Xanfarin' emankizunekin haur eta gazteek egindako irratiak bilakatu da Irulegiko irratiak. Bestalde, lehen aldikotz 'Gau Izar' saio berria estudiantetik kanpo grabatzen dute

hilaro. 'Xurrrutak' emankizun berria ere Irulegiko irratiari entzun dezakegu ostiralero azaroaz geroztik, Euskal kultur erakundeak bultzatutako emankizuna hiru irratiari zabaltzen baita. «Beste proiektu franko ere baditugu, eta nola ez aipa Xorroxin

Irratiarekin abiatuko dugun emankizuna, *duplex*-ean», irratiari adierazi zuten.

Hala ere, puntu materialagoak ez dira aiantzi behar, irratiari biziartzeko 'gerlaren zaina' beharrezkoa baita: dirua! Urte urte, aurrekontua goratuz doa. 1994. urteari dagokionez 600.000 liberakoa izan da eta 90.000 liberako zuloa dute.

«Kargu sozialak goratu dira, soldata eta gastuak ere bai, beraz...». Egoera argi da eta aterabidea ez dute oraindik atzeman. Diru sartzean erdia entzule eta laguntzaileei esker egiten da, estatuen laguntza aurrekontuaren % 28koa da, eta bertako produktio edo animazioek % 22 ekartzen dute. «Ahantzi dugu Kontseilu Nagusiaren laguntza, 20.000 liberakoa urtero», bat-batean oroitu ziren, dolutuz Bayrouren hitz hutsak: «gauza aintz hitz eman baititu, baina deus ez aldatu ekintzetan». Nafarroa Behereko herriko etxeek laguntzen dute irratiari ere baina frankotan laguntza sinbolikoa da. Hots, banaz beste ttipia da kontuan hartzen bada 40 herrik ekartzen dituztela 20.000 libera.

Geroari buruz? «Lan batzorde berriak eratu ditugu», hasi zen Jojo Bidart; «bai, tresnak, emankizunak, harremanak...» segitu zuen Pantxo Irigarai. «Animazioa», bota zuen bat-batean Marie Agnes Gorostiaguek, bere saila nekez ahantziko baitu. Bost minuturen buruan kontuak aztertuko dituen batzordea ere sortuko dela oroitu ziren.

Umorea izan arren, langile serioak ditugu irratiari. Nahi dūten geroa argi dute buruan kalitatezko irratiari egin nahi baitute Baxe Nafarroan.

Altsasu

Neskatilak diru eske ariko dira larunbat honetan Santa Agedarako

PATXI ULAIAR / ALTSASU

Igande honetan itzuliko dira Altsasuko karriketara kintoak, bost egunetan zehar egingo duten jai egunak ordaindu ahal izateko diru eske. Santa Ageda Burundako herritarren jairik preziatuena denez, gutxi izango dira sakelak hustuko ez dituztenak. 'Hustu', mutikoei ezezik, neskatilak ere eman beharko dietelako aurten, iaz bezala diru eske aterako baitira. Neskek, ordea, larunbatean eskatuko dute dirua, Santa Ageda bezperan aterako diren koruekin batera. Kantatzera atera nahi duenak Arkatz eta Urteaga liburudendetan dituzte koplak.

Santa Ageda, duela zenbait urte arte, mutikoei soilik egiten zuten festa zen. Diru eske ibiltzen ziren egunean, neskek opilak banatzen zituzten, eta gero kafeetara azaltzen ziren. Gizonetako egiten zuten gainontzeko guztia, alegia: zortzikoa dantzatu, bost egunetan bazkaldu eta gosalduta jabetze batean, eta txar-

rangekin kalez kale aritu. Duela bost bat urte, ordea, neskek hasi ziren protagonismo handiagoaren bila, eta ezarian lortu dute festan sartzea. Aurten lau egunetan bilduko dira mutikoei bazkaltzeko, eta heldu den igandetik larunbatera bitarte elkarrekin egingo dute festa. Gainera, lehengo era zaharrean jantzita, Foru Plazan dantzatzeko diren zortzikoei izango dira, animatzekeo sikiera, eta parte hartuko dute dantzetan.

Partehartze hau ez da denek gustukoa izan, eta herrian askotan jasan behar izan dituzten kritikei aurre egiteko, Jimeno Jurio etnografoaren 'Euskal Herriko ohiturak' izeneko liburuan arakatu dute bizitzan behin soilik egiten den festa honen jatorria. Bertan azaltzen denez, behiala, erabiltzeko gai ez ziren zahatoak eta narruak gordetzen ziren urtean zehar etxetan, eta Santa Ageda bezperan, nekazariak su ematen zieten, eta korrika eraman baratzetara. Honen asmoa uzta sutik gordetzea zen. Negu

partean neska taldeak norbaiten etxean biltzen ziren josi eta ardazteko. Etxekoei eskerrak emateko, lehendabiziko egunean artoari borrostoak kentzen zizkioten eta azkenengo egunean baratza jorratu.

Ostegun eta larunbatetan dantzara ateratzen ziren panderoen musikaz, eta momentuan asmatutako koplak abesten zituzten. Santa Ageda bezperan neskek opila ematen zieten mutilei, eta gero jotak eta porrusaldak dantzatzeko zituzten. Gero, mutilek ezkilak jotzen zituzten, eta neskek herrian zehar ibiltzen ziren koplari, janaria eskatuz.

1905. urtean ez zen festa hau ospatu, eta urte hartan bertan sute bat izan zen Zelai eta Zelandi auzoak bitartean, eta, ondorioz, dozena bat gizon lanik gabe gelditu zen. Altsasuarrek santonearen zigor bezala hartu zuten zorrigaitza, eta hurrengo urtean berri ere ospatzen hasi zen jaiak. Hala ere, orduan mutikoei festaren protagonista bakarrak ateratu ziren, gaur egun arte.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Oinik gabe

Bekatiariak barkamena merezi du baldin eta egindako bekatuak damutzen bada. Gauzak horrela, nik ez dut barkamenik merezi, ez baitut damu euskal kulturaren lehendabiziko mandamenduaren kontra —'Bertsolaritza maitatuko duzu gauza guztien gaitetik'— premeditazio eta alebosiarekin segituan idatziko dudana: Egaña, Peñagarikano, Sarasua eta bertsolaritzaren gainontzeko apostoluek aspertu egiten naute. Hau da, euskalduna banaiz ere, RH negatiboa badut ere, ez dut bertsolaritza maite.

Seguru asko bertso-fededunek 'vadé retro-ka' ehundaka eskutitz igorriko dituzte EGUNKARIAre nire jarrera salatzeke. Hala ere, esan bezala, ez naiz damutzen, arestiko aitorenari esker argi eta garbi utzi baitut bertsolaritzak ez duela NAFARKARIAko sekzio berri honetan



tokirik izanen. Zutabeak 'Kartzelako Gaia' du izenburua, baretik izenburua berez itxurosoa delako, eta bestetik bere baitan kartzelako gaiak izanen direlako kontagai, hain zuzen ere Iruñeko San Roque kaleko kartzelako gaiak. Horrexegatik besterik ez. Beraz, oinik gabe ariko naiz, doinu eta neurri librean.

Intsumitua naizela eta, joan den urtarrilaren 16an sartu ninduten preso, eguerdiko ordu bata t'erdietan, eta harrezgortzik bizi izan ditudan eta biziko ditudan pasadizoen berri emanen dut txoko honetan, bizirik segitzen badut, bederen; izan ere, osasunez ez ei nabil batere ongi. Kartzelan sartu nintzelarik, bertako sendagileak errebisioa edo antzeka zerbait egin zidan. Galdera sorta kuriosoa —¿Te pinchas?, ¿Esnifas?, ¿Bebes?...—, tentsioa neurtu eta fuera. Medikuek egunero-egunero metadona eske joaten diren dozenaka drogazale ikusten ditut, hainbat HIESdun, beste horrenbeste hepatitisdun eta abar. Hala ere, errebisioa burutu zuelarik honako hau esan zidan: «Musu zuri-zuri horrekin ezin zara ongi egon, zaindu zaitez». Zorionez, urtebetez ez naiz EGUNKARIAko floreszenteen pean lanean ariko.

Joan den abenduaz geroztik, iruindarrek sei bizilagun berri dituzte: haizearen indarrak Erreniegako gainean energia ekoizten duten sei haize errota, hain zuzen ere. Nafarroako lehen haize parkea da, baina ez bakarria, 1995etik 2000. urtera bitarte Nafarroako Energia Hidroelektrikoak (EHN) sei parke eraikitzeke asmoa baitu. Gurelur talde ekologistak, alabaina, ez du oso garbi ikusten proiektu horren bideragarritasuna, «ingurugiroan eragingo duen kaltea ez duelako behar bezala neurtu EHNk».



Sei haize parke paratu nahi ditu Nafarroa osoan EHN enpresak 2000. urterako.

JOXE LACALLE

Haizea ate joka

esker Nafarroako industria bereizi egin daiteke, orain arte ibilgailuen sektorearekin izan duen menpekotasuna hautsiz. «Haize energiaren inguruko industriaren teknologiak antza handia du ibilgailuen industriarekin». Gamesa enpresak Landabenen jarri du erroten muntaiarako planta eta, enpresaren hitzetan, horri esker generadorearen % 80 ekoiz daiteke Nafarroan.

Bestalde, energiaren kontsumoari dagokionez, zehatza da Morras: «Orain arte, Nafarroako kontsumitzen duen energiaren % 11 baino ez du produzitzen, eta gainontzekoa beste lurraldeetatik ekarri behar da. Haize parke hauei esker, ordea, portzentiaia hamar puntu inguru igokoa litzateke eta Nafarroako duen energi dependetzia, berriz, jaitsi».

Nafarroan dagoen haize energia potentziala 800 Mw-koa da, baina 500koa da ingurugiroaren ikuspuntutik egokia. Oraingoan, 100 ekoiztuko ditu EHNk.

Esteban Morras da EHNko zuzendaria eta EGUNKARIARI Nafarroako haize parkeei buruzko gora-beherak azaldu dizkio. Energia berrigarria, garbia eta amaigabea dela azpimarratu ondoren, ekonomia ikuspuntutik ere «oso interesgarria» dela dio. «Hirurehun lanpostu inguru sortu eta haize energiaren inguruan industria era daiteke. Nafarroako haize parkeentzako errota egiteaz gain, esportatzeko aukera ere egon liteke». Zuzendariaren ustez, haize energiari

PARKEAK NON ERAIKI EHNk sei haize parke eraikiko ditu. Eguraldi estazioek beldutako datuei esker, Nafarroan

37 balizko kokaleku aztertu ditu EHNk eta horietatik sei aukeratu ditu. Haize parke hauen eraikuntza udalez gaindiko eragina duen Sektoreko proiektua da eta hori dela-eta Nafarroako Gobernuaren onarpena behar du. Hil honetan hartuko da erabakia. Hori argitu bitartean, EHNk ez du aztertu dituen eta azkenik aukeratu dituen herrien zerrenda eman nahi, nahiz eta komunikabideetan hain

kionak, bestetik». Irizpide teknikoaren artean, besteak beste, bertara ailegatzeko bideak eta sare elektriko nagusiarekin bat egiteko moduak hartzen dira kontuan. Proiektua da eta hori dela-eta Nafarroako Gobernuaren onarpena behar du. Hil honetan hartuko da erabakia. Hori argitu bitartean, EHNk ez du aztertu dituen eta azkenik aukeratu dituen herrien zerrenda eman nahi, nahiz eta komunikabideetan hain

Leitza, Beruete, Eratsun eta Ezkurrako alkateekin bildu ziren Donamarian EHNko ardura-dunak, parkeen egitasmoa azaltzeko. Baietz erran dute alkateek.

horretan dauden zonak dira ikuspuntu tekniko eta ekonomikoak haize parkeak eraikitzeke aproposak.

Ingurugiroari edo irizpide ekologikoari dagokionez, EHNn duen inguruan azterketa gutxi egin dela aipatzen dute enpresaren horien beharra azaltzen. Bitartean, Estatu Batuetan, Kalifornian dagoen Altamont Pass puntutik interesa edo garrantzia duten inguruak ere. Ondoren, aukeratzeko orduan, garrantzi bera ematen zaie irizpide tekniko eta ekonomikoari eta irizpide

ekologikoei. «Adibidez, tekniko eta ekonomikoki, urtero 2.000 orduko energi produkzio-tik gorako lekuak dira egokiak, baina paisaiaren edo ingurugiroaren aldetik kokaleku hori egokia ez bada, ez da bertan parriak, hau da, iraunkorra den edo boladaka datorren, dira funtsezkoenak. Nafarroan, itsasaldetik sartzen da haizea ipar-mendebaldetik eta hego-ekialderantz abiatzen da. Hain zuzen ere, tarte

errota bakoitzarekin hogeita sei urtetik behin egin du topo txori batek». Tarifako (Cadiz) haize parkean, ordea, putre asko hil zen eta honek SEOREn (Espainiako Ornitologi Elkarte) salaketa eragin zuen. Morrasen ustez, «parkearen kokalekua ez zuten ongi aukeratu, ondoren putreen janlekua baitzegoen».

garrizat jo daitezke, Morrasen hitzetan. Baina esparru honetan arazorik kezagarria hegaztiak izan dezaketenez arriskua da. Arazo honen inguruan azterketa gutxi egin dela aipatzen dute enpresaren horien beharra azaltzen. Bitartean, Estatu Batuetan, Kalifornian dagoen Altamont Pass puntutik interesa edo garrantzia duten inguruak ere. Ondoren, aukeratzeko orduan, garrantzi bera ematen zaie irizpide tekniko eta ekonomikoari eta irizpide



Esteban Morras enpresako presidentea.

OSKAR MONTERO

si dugu mendia errótaz bete ikustea arraroa» izango dela aitortu du. Eratsun eta Ezkurrako alkateak ere baikor agertu dira proiektuarekin eta dagoeneko parkea bertan ezartzeko baimena eman dute. Trukean milioi bat jasoko du udal bakoitzak. Rufino Mariezkurrena Ezkurrako alkateak parkea ezartzearen truke jasoko duen dirua azpimarratu du ezerean aurretik. «Ezkurra oso herri pobrea da eta diru honek gure egoera argitu egingo du». EHNko teknikariak bertan izan dira dagoeneko parkea jarriko omen duen eremua aztertzen. Lur eremua 75 urterako utzi dio Ezkurrako Udalak EHNri eta urtero hiru milioi t'erdia inguru jasoko dute Ezkurrakoek.

Eratsungo alkate den Pedro Zesta ere herriak irabaziko duen dirua eta energia garbia izazaz azpimarratu du parkeari baietza emateko arrazo nagusi-tzat. «Eratsuneko urtero bost milioi t'erdia jasoko ditu eta hamazortzi errota jarriko dituzte bertan» aipatu du Zestaok. Diruarengatik pozik, beraz, herrietan, itxuraldatuko badira ere. Mendi punta batzuetan, berderen, haize zirimolak zaratsua izango dira luze gabe.

Gurelur: «Parkeak bai, baina neurritz»

E.E. / IRUNEA

EHNk haize parkeek ingurugiroa errespetatzen dutela defenditu du proiektuaren hasieratik, eta, halaber, ikerketak egin eta kalte gutxien egin dituzten guneetan ezarriko direla ziurtatu du. Aitzitik, haize indarra energia berrigarria denez, ekologia-aren bultzatzaile eta ingurugiroaren defenditzaile dute haize parkeen egitasmoa. Gurelur Ingurugiroaren Babeserako Nafarroako Udala, zuzendari jarri du EHNren asmo eta esanak eta haize parkeen egitasmoari buruz duen iritziaz mintzatu zaigu. «EHNk egin duen proiektuak zaltzen du Nafarroako naturaren kontserbazioa. Bi ordu t'erdiko bilera egin genuen Esteban Morrasekin eta erran zigunak dardarka utzi gintuen. Nafarroa haize errotaz bete nahi dute. Euren interes bakarria dirua irabaztea da. Hegaztien Babeserako Inguru Berezikiak errespetatu dituela erran du EHNk baina Nafarroan oso gutxi daude; beraz, hori erratea edo deus ere ez erratea berdin da», azaldu du Antonio Munilla Gurelur-eko idazkariak.

EHNko ardura-dunak hegazti-errotekin topo egin eta hiltzeko duten arriskua aztertzen ari direla azaldu du, baina Munillaren ustez, hori ez da hegaztien-azterketa arrisku bakarria, ezta kaltegarria ere. «Urte osoan zehar Nafarroa osoa zeharkatzen duten hegazti migrazioak arazo larriak eragin ditzuten haize errotekin. Etengabe aldatu beharko dute norabidea, atzera eta aurrera egingez. Ondorioz, ohi baino energia

kopuru handiagoa gastatu dute hegaztiak eta asko eta asko hil egingo da. Hegazti migrazioak arazo asko dituzte eta haize parkeek euren egoera lasgarriago bilakatuko dute». Gainera, Munillaren ustez, «barregarria» da Estatu Batuetan hegazti buruz egindako ikerketak Nafarroan erabiltzea. Are gehiago, Gurelur-eko idazkariaren ustez, «EHNk ez du parkeak ezarri nahi dituen lekuetan ingurugiroari buruzko azterketarik egin».

Antonio Munilla gaitzetsi egin du EHNren jokabidea. «Hasiera batean, haize parkeak edonon jarriko zituztela erranez, mehatxatu gintuzten, besteak beste, Lindux, Irati eta Urbasan. Beldurtu egin nahi gintuzten, izatekotan, Ingurugiro Sailak biatariko zeini emango lioken lehentasuna galdetu zion Muni-

llak Sanzi. Sanz kontserbazioaren alde agertu zen. Esteban Morras ere galdere bera egin zion eta Morrasen ustez, «Jendaurrean erran zuten, parkeen batek aurkako txostena jasoz gero Ingurugiro Sailko erabakia errespetatuko zuela. Beraz, inoiz errandakoaren kontrarik egingo balu bere jokabidea salatuko genuke», dio Munilla. Era berean, EHNri parke bakoitzaren txostena eskatu behar dio Gurelurrek guztiak ikertzeko asmoz. Orain arte, ikusi bai baina ez dute txostenak aztertzeko aukerarik izan. Egitasmoa Espainiako talde batzuen interesa ere erakarri du, eta Morrasen irudikoz, Greenpeacek Nafarroako haize energiaren proiektua eredugarritzat jo du.

da, bere ustez, kalterik gutxien eragin dezakeena. Gurelurren, hala ere, haize energiaren aldekoak direla diote, baina parkeak arrazionalki kokatuta. «EHNk ekologikoa den proiektu bat saldu nahi du, baina agian guztiz kontrarioa izan daiteke». Energia gehiago ekoiztu ordez «aurreztu» egin behar dela azpimarratu du Munilla.

Gurelurreko idazkariak Esteban Morras EHNko zuzendariarekin egin zuen topo UGTk industria eta ingurugiroari buruz antolatu zituen jardunaldietan. Bertan Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Ingurugiro Sailko kontseilaria zegoen. Ekoizpenaren eta kontserbazioaren arteko gatazka

izatekotan, Ingurugiro Sailak biatariko zeini emango lioken lehentasuna galdetu zion Muni-

Gurelur taldearen ustez, Erreniegakoa da kalte gutxien eragin dezakeen parkea, baina besteak hegazti migrazioarekin traba handiak jarriko dizkiete.

ondoren, leku hauen ordez proposatu zuketene beste edozein onar genezan».


Bestalde, Gurelurreko idazkariak erran duenez, EHNk Gerindan —San Martin Unxen inguruan— jarri nahi du haize parke bat, eta proiektu horren kontra daude erabat. Munillaren ustez, inguru horretan parke bat jaritzeak «kalte handia» eragin dezake «eta gauza bera gerta daiteke gainontzeko parkeetan ere». Gerinda Mediterraneo baso naturala dagoen ingurua da. Munillaren ustez, hori EHNk ez zekien eta erran ziotenean aho zabalki geratu ziren bertako arri-rik inguruko dituzten haize errotekin. Etengabe aldatu beharko dute norabidea, atzera eta aurrera egingez. Ondorioz, ohi baino energia



Erreniegako parkea izan da haize errota jaso dituen lehendabizikoa.



XAKEAN



Nafarroako Taldekako Txapeketa-
taren 3. Jardunaldiko partida,
1994ko urriaren 29an jokatu.
Miguel Angel Hernandez, 1.855
ELOkoa (Iruñeko Casco
Antiguo)—Joaquin Antunez,
2.235 ELOkoa (Iruñeko Anaita-
suna).

1.e4,d6; 2.Zf3,e5; 3.d4,Zd7;
4.Ac4,De7; 5.Zc3. Beltzen gara-
pena astiroago doa. Alfilak ozto-
patuta dituzten bitartean, txuriek
ia pieza guztiak dituzte jokoan.
5...c6. Beharrezkoa, 'Zd5' gara-
razteko. 6.0-0,h6; 7.Dd3,g5. De-
fentsarik onena eraso omen da.
Erregea erdian gera daitekeenez,
arriskutsua. 8.e5,e5; 9.h3,Zb6;
10.Ab3,g4; 11.g4,Ag4;
12.Zh2,Zf6; 13.f4,h5;
14.e5,De5; 15.Af4,Ac5 xa;
16.Eh1,Dd4; 17.Ag5,bZ-d7;
18.e5,Zd5. Txurien presioak
errakuntza behartu du. Peoi bat
galduko dute beltzek. 19.Zd5,d5;
20.Ad5,f5. 'De5' egin izan balu-
te, 'aG-e1' etorriko zen.

21.e6,Zb6; 22.Db4 xa, Ef8;
23.Ab7. Ez dgo erran beharrik
txurien nagusitasuna nabarmena
denik. 23...Ge8; 24.c3. Ikus
Koadroa. Alfila defendatzea ezi-
nezko lana bihurtuko da.
24...De5; 25. Af4,De6; 26.Dc5
xa,Ef7; 27.a4,Eg6; 28.Zf3,h5;
29.aG-e1,Df7; 30.Dd6 xa,Eh5;
31.Ge8,De8; 32.Df6,Dg8;
33.a5,Zd7; 34.Dd6,h3;
35.g3,Dc4; 36.Gf2,Zc5;
37.Df6,Dg8; 38.Ad5,Ze4;
39.Af7 xa. Matearen aurrean,
beltzek burua makurtu zuten.
Posizioa gehiegi irekitzen saiatu
ziren, txuriek jokan pieza gehia-
go zutenean.

Jaungoikoaren beldur?

Galdera: Ama naiz, kristaua, eta ene alaba lesbiana dut, eta semea homosexuala. jaungoikoaren beldur izan behar al dut?

Erantzuna: Grekoek ziotenez (Platonek hain zuzen ere), munduaren hastapenetan baziren gizonak, emakumeak eta androginoak. Baina pertsona hauek bikoak ziren, hau da, burubikoak, sudurbikoak, lau hankadunak. Beraz bina buru, launa begi eta zituzten. Halako batean Zeusek erditik moztu zituen. Horrez geroztik gizon eta emakumeak zirenek beren erdia bilatzen dute, hau da sexu bereko beste erdia. Androginoak zirenek, berriz, seku desberdineko pertsonak. Azken hauek gaur egungo hete-


rosexualak dira. Zeusi berari damutu egin zitzaion hori egin izana, zenbaitek beste laranja erdia aurkitzen ez baitzuten. Zure Jaungoikoa ez dadila izan Zeus baino gutxiago, eta ez izan Jaungoikoaren beldur, gizon eta emakumeen beldur baizik, azken hauek baitira arriskutsuak.

Galdera: Zein da haurdun ego-
tearen lehendabiziko enbarazu?
Erantzuna: Duda izpirik gabe,
modatan jarri den segidako gal-
dera: 'Haurdun zaude, eta zuk
nahita?' Halakoetan nik uste dut
jendearen atsekabe gosea asetu
beharra dagoela, eta jendeak en-
tzun nahi duena esan: ez, para-
penteketan nengoelarik, zas-
tzist-mastzist, deltahegoketan

Pentsamenduak

Zer egin dezaket arratsalde hone-
tan? Nere lagunekin zinemara
joango naiz? Ez, ez dut uste go-
goak ditudanik. Ia, pentsatu, bur-
muin ahuldua! Zertarako zaude?
Apaintzeko ez, ez bait zara oso
ederra, guztia esan behar da!
Baina zer egiten ari naiz, nere
buruarekin eztabaidatzen? Zer
gertatzen zait?

Psikologo baten laguntzaren beharra
daukadala uste dut. Antzokira joan naite-
ke, museora, edozein lekutara. Baina
etxean ezin naiteke geratu, ez horixe, nere
lagun hoberenari etxean geratuko ez nin-




Laura Marcos

(BARAÑAIN)

berarentzat! Ez daki zer galtzen duen! Joan
zaitez nere burutik oraintxe bertan! Desa-
gertu! Beste gauzetan pentsatu behar dut...

Adibidez... adibidez... nere Historia az-
terketan! Bai, hori da! 10 bat atera bhear
dut... Karlos, maite zaitut! Kendu ezazu
tontolapiko hori zure burutik, inozo hala-
koak! Ezin duzu beste gauzetan pentsatu?
10 atera behar duzun azterketan pentsatzen
ari zinen! 10 bat! Inoiz ez nuen horrelako
notarik atera... nire buruaz harro nago, oso
harro. Historia azterketa guztiak orain arte
suspenditu ditut, eta hauetan bikain bat
atera dut, bik... zer da hau?!?! Karlosek
oparitutako panpina! Paperontzira! Hor



tzela zin egin diot, eta nere buruari ere bai.
Gehiago deprimituko naiz hemen geratzen
baldin banaiz.

Lagun bat behar dut, nere kezka en-
tzungo zizkidan norbait: Maider. Hori da,
bai, Maider behar dut. Ez. Bakarrik egoi
nahi dut. Zergatik utzi nau Karlosek? Zer
egin diot? Maite ninduela uste nuen, eta
gutxienez hori esan zidan orain dela hiru
egun! Nork edo zerk aldatu dio iritzia?
Bost axola niri!! Karlosi gorroto diot, bai,
gorroto diot! Ez banau maite, okerrago

hobeto egongo da! Oroimenak eta oroim-
enak, hori da geratzen zaidana. Badakit
zer egingo dudana!

Telefonozko dei anonimo bat egingo
diot Karlosi, bururaten zaizkidan irain
guztiak botaz! Ez, irainak baino hobe me-
hatxuak. Hori da mehatxuak! Hain bel-
durtia da, ez dela etxetik aterako bi astetan!
Baina zergatik? Hark ez dit ezer egin eta!
Behar dudana bainu bero bat da, bainu
bero eta lasaigarri bat... eta ezertan ez
pentsatzea...



Ez izan Jaungoikoaren
beldur, gizon eta
emakumeen beldur
baizik, azken hauek
baitira arriskutsuak.

zebilen Murtxanteko mutil baten
kontra jo, eta hemen naukazu,
ernari. Hau atsekabe hau.

Galdera: Ba al dago alderik nes-
ka eta mutilen artean, eszitazio
aferetan?

Erantzuna: Badirudi, eta sal-
buespenak salbuespen, erakar-
garriagoak direla mintzo esti-
muluak emakumezkoentzat, eta
irudiak gizonezkoentzat.

Galdera: Pattarra ona al da?

Erantzuna: Zilegi bekit maisu
baten hitzak aldatzea, Jean Et-
chepare mirikuarenak, alegia.
'Frantses izena *eau-de-vie* du
aguardienteak. Hobeki balioake
eau-de-mori. Nork daki zoinbat
gizon duen hilik hastetik hunat?
Edo zoin mintzaiez edo zoin izen
demozuen, batetara doa. Ez da
egundaino agertu lur hunen gai-

nean halako gizon-hiltzailerik,
nola baita aguardiente. Nahuzue
derragun *alkoola, arno izpiritua?*
Izenak ez du usainik, ez eta po-
zoinik. Ba ordean agurdianteak.
Halere futxo den bezalakoak
etsai bezenbat adixkide baitu
bazterretan, eta gehiago ere'.

Madiku naizenez, bat nator
Jean Etchepare mirikuarekin. Eta
egia esan, egoerak ez du oraingoz
goia jo zoritxarrez. Zinez, oso
dugu gauza kaltegarria. Hala ere,
horrez gain, mundu honetan bizi
naizenez, aitortu behar dut gizo-
ne-emakumeok ezin ditugula,
noiz behinka bada ere, mundu
zikin eta higuigarri honetatik
alde egin gabe, errealitate neurri
handiak jasan. Eta horretarako,
zer esanik ez, bide agudoenetari-
koa dugu *eau-de mort-vie*.

Aspaldi ez dela, Euskal

Herrian abendua eta urtarrila munta handiko hilabeteak ziren: gorriz markatutako egunak, txerria hiltzeko egunak. Hilketa esanahiz beterikoa zen hura, funtsezkoa baitzen animalia orduko elikaduran. Gaur egun oraindik hiltzen da txerria herri gehienetan, baina ez du, inondik inora, lehengo garrantzia. Hau duzu edozein herritako edozein etxetan gerta zitekeen txerri hilketa baten kronika. Herria Lakuntza da, etxea Anduezarrena.



Odolustea da txerri hilketaren unerik garrantzitsuena. Ondoren hesteak atera eta ongi garbitu behar dira, hautsi gabe.
ALBERTO BARANDIARAN.



Letxon gaua

A. BARANDIARAN / LAKUNTZA

Kortan lasai dago txerrama. Kanpoan urduri beste guztiak. Zazpiak puntuan. Matatxerriaren esperoan, hala ere. «Puntuala izaten duk, ba». Zazpiak eta laurdenetan bertan da. Emakumeek aspaldian egin dituzte odolkiendako prestakizun guztiak, eta gizonezkoek bildu dituzte —zahatoa lagun— ondoren beharko dituzten indarrak. Urteko ordurik berezietakoa heldu da.

Txerramari artoa eman eta hitz goxoak esaten dizkio Eusebio Lizaurrek. Ziria sartzeko, lasaitzeko trikimailua. Amenjesus batean sartu diote gakoa lepondoan, eta bat-batean ohartu da animalia hori ez dela bere eguna. Bultzadak, oihuak, eta mahai

gainean berehala. Ondoren labana, zuzen-zuzena eta behar den tokian. Odola dario borborka, eta tanta galdu gabe biltzen da kuboan. Hustuta ere, bigarren arnasaldia hartzen du txerriak, eta askatzekotan da une batez. «Esaten nian ba, indarrak hartzen ari zela!». 230 kiloko letxona baita. Klase ederrekoa, denen aburuz, baina berezia. Behin pisua hartuta, ez da gehiago hazten, gilborra eskasa du eta. Odolustuta, erre egin behar, eta iratzeak erabiltzen dituzte oraindik Anduezarren etxean. Gehienetan butanoa nagusitu da. Garbiago eta erosagoa omen, «baina tradizioa tradizioa da».

Erre ondoren, lepotik behera ireki, eta barrukiak ateratzen dizkiote. «Usain honengatik ez nintzen ni matatxerri izan!», dio



Juanitok. Garrantzitsuena da ezer ez puskatzea, bestela haragiak usaina hartuko zukeen eta. Hortik aurrera, lan handiena emakumeena izango da, Rosita Andueza eta Arantxa Urzelairena. Txerria garbitu eta galborrak kentzen zaizkion bitartean, hesteak garbitzeari ekiten diote sukaldean. Txerria ezkaratzean geldituko da buruz behera, makila bati eutsita, bizkarrezurra za-

baldurik, freskatzeko eta.

Sukaldean, behin hesteak garbirik, afaria dator. Lanean aritu diren guztiak biltzen dira mahaian, gibela eta beste jakiak dastatzera. Emakumeak zutik. Ondoren, odolkien txanda da. Arroza, tipula, porrua, gilborra, espezieak, perexila, dena nahasten da odolarekin, eta hesteetan sartu. Usainak etxea osoa hartzen du, gizonezkoen solasaldiak be-

Odola, arroza, tipula, porrua, gilborrak eta espeziak nahastea da odolkien oinarria. Bitartean, txerria ezkaratzean uzten da, freskatzen.
ALBERTO BARANDIARAN

zala. Lukas, Anjel eta Juanito Anduezak behorrekina eta gurdiekin basoan izaniko pasadizoak, aspaldiko kontuak elurra eta euriaren azpian... lan kontuak, bizitza kontuak. Kafé eta patxarana mahai ondoan. Emakumeak hesteak betetzen etengabe, hesteak zulatzen, uretan sartzen eta ateratzen, zintzilikatzen.

Txorizoak, haragia, puska guztiak harakinak egingo ditu hurrengo egunean. Ederrenak apaizarendako izango dira. Ia gainontzeko guztiak lagun eta etxeokendako. Inoiz baino odolki gehiago, baina inoiz baino gehiago esperoan daudenak. Ordu bata da. Etxera joateko ordua. «Aferi goxoa», gizonezkoek. Agurrak. Emakumeak odolkiak egiten gelditzen dira.

«Itoitzek ondare historiko garrantzitsua urperatuko du»

A.B. IRUNEA

Longida, Artzibar, Urraul-beiti eta Urralgoitin, alegia, Itoizko urtegiaren inguruan dauden ibar hauetan, aspaldikoa da despopulazioa, baina jendez hustu badira ere, ondare arkitektoniko joria dago oraindik gaur egun bertan. Urtegia eginez gero desagertuko den ondarea. Joseba Asiron irakasleak aztertu ditu elizak,


oinarritu ziren. Bestalde, eliza gehienak gotiko edota erromaniko garaioak dira, XII. edo XIII. mendekoak. Halaber, Iruñean ez dauden etxe gotikoak daude Orbaitzen. Artozkin badira zubiak... Pena izango zen urtegia eraikitzea, ondare hau galduko litzatekeelako. Jadanik azaldu dira lapurrak, eta hasi dira gauzak eramaten. Desastrea izango da.

ASIRON.— Artozkikoa da harriz harri eraman nahi dutena, baina, berez, ez dago arrazoi objetiborik eramateko hori eta ez Orbaizkoa edo Itoizkoa. Ez dago bat bestea baino gehiago denik. Adibidez, Artozkin bertan bada oso jauregi ederra, gotikoa hori ere, eta Indaenea etxea, XVII. mendekoa. Horrelako erabakiak politikoak dira, hain zuzen ere, beste eraikinak inork errebindika-

historiko izendatu zituen Nafarroako Gobernuak. Ondorioz, berritu egin zuten Erdotzaingo hau. Baina garaia jauregi baten erdian dago, eta gaur egun jauregia erortzen ari da. Horrek esan nahi du ez dagoela inolako irizpiderik gauza bat utzi edo berritzeko.

EGUNKARIA.— Zazpe herriak benetan irudi beldurgarria dauka.

ASIRON.— Egon nintzen lehendabiziko aldian iruditu zitzaidan herri beldurgarria. Ondoko herrietan galdetu nuen gero, eta esan zidaten azken garaian lau anaia gelditu zirela, eta etxeen artean, herria



Zizur Txikiko San Fermin Ikastolako irakaslea da Asiron.

OSKAR MONTERO

etxeak eta jauregiak, urterik urte arrailatzen den ondasun hau. Aste honetan egon da Euskalerrria Irratian, eta hortik atera ditugu pasarte esanguratsuenak.

EGUNKARIA.— Dauden eraikinen artean baten bat azpimarratzekotan, zer hartuko zenuke?

JOSEBA ASIRON.— Itoitzen bertan bada oso dorretxe polita, nahiz eta berritu gabea izan. Halaber, hortik oso gertu, Oliberrin, —hau da, Urrotz pasa eta, Agoizko bidean, ezkerrean gelditzen den herria— berritu zuten duela gutxi beste dorretxe eder bat. Partikularren egitasmoa izan zen, eta horretarako Aianzko dorrean

EGUNKARIA.— Eliza hauetan erromaniko erruralaren ezaugarriak ikus daitezke. Zeintzuk dira ezaugarri hauek?

ASIRON.— Erromaniko zein gotiko errurala xumea da oso, baina inguru honetan badira nabe bakarreko elizak, hau da, benetako erromanikoak edo gotikoak dituen ezaugarriak dituzten elizak. Gero, XVI-XVII. mendeetan izan zen goraldi ekonomikoarekin batera, gangak edo estalkiak aldatu egin zituzten. Erretaulak ere badira asko, baina horiek urperatu baino lehen eramango dituzte.

EGUNKARIA.— Esan izan da elizaren bat lekuz aldatuko dutela. Horrela izango da?

tzen ez dituelako.

EGUNKARIA.— Inguru hau ezaguna egin da, Itoizko urtegiarengatik, baina hor Agoitza alde horretan, badira herri ia ezezagunak, sastrakez beterik edota huste bidean daudenak. Hor ere izango dira eliz eta etxe ederrak.

ASIRON.— Hortxe bertan badira dagoeneko desagertutako herriak, esate baterako Zazpe herria, edota Erdotzain. Negu honetan bi etxe erori dira bertan. Bat XIV. mendekoa —Uritz etxea—, eta beste bat Leotz etxea, XVI. mendekoa, ederra zena. Erdotzainen oso gauza bitxia gertatu da. Hor bada garai bat, eta, jakina denez, guztiak ondare artistiko-

«Negu honetan bi etxe erori dira Erdotzainen. Bat XIV. mendekoa —Uritz etxea— eta bestea XVIkoa —Leotz etxea—».


alaitzeko, jarri zutela tegi bat magnetofon batekin, dantzaldiak eta egiteko. Hori izan zen gerra aurretik. Gero hil edo joango ziren, eta herria, gaur egun, ia abandonaturik dago. Ez da ikusten ezta non zegoen ere. Etxeak txaletak egin nahi dituztenek erabiltzen dituzte harrobi gisa.

EGUNKARIA.— Artzibarren inguruan desagertu diren herriak dozenaka zenbatu daitezke, nahiz eta gaur egun jadanik ezta mapetan ere ez diren azaltzen.

ASIRON.— Hori da 'Nafarroa sakona'. Inolako eraginik gabeko Nafarroa. Gainera, oso goiz abandonatu ziren herriak, eta gelditu dira garai hartan zeuden bezala. Adibidez, batzuetara iristeko ez dago errepiderik, Zarikietan bezala, 11 kilometro egin behar direlako pista batetik.

Joseba Asiron

IRAKASLEA



SOSLATA

Arbasoen jatorria

Historia eta Arte irakaslea da Asiron Zizur Txikiko San Fermin ikastolan. Arlo horiekiko atxikimenduak ezezik, bere arbasoen jatorriak ere izan du zerikusia inguru honetan sakontzeko hartu zuen erabakian. Amona, izan ere, Erdotzaingoa zuen, eta askotan entzuten omen zizkion hango ibarrei buruzko istorio eta pasadizoak.

Amona hil ondoren ingurua ezagutzera joan zen, eta, dienez, «alderdi maitagarria da, edonori gustatuko litzaiokeen lurraldea».

NOSKI JATOR

© ZALDI ERDA

